



NIE SARIAK 2016

PRENTSA DOSSIERRA
2016-12-20

AURKEZPENA

Nafarroako Ikastolen Elkartek (NIE), irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialeko kooperatiba izaki, euskara eta euskal kultura, bereziki, eta kultura unibertsala, orokorrean, sustatzea, biak hezkuntza- eta gizarte- garapenari lotuz, eta jarduera artistikoak eta/edo kulturalak garatzea ditu bere helburuen artean.

Horiek horrela, NIEn urtero, alor ezberdinetako lagunak edo erakundeak saritzen dira, bere izatearen garai ezberdinetan zehar ikastolen mugimenduari egindako ekarpenarengatik, arlo linguistikoan, zientifikoan, informatiboan edo/eta kulturalean.

NIEk 2016ko saria **Aingeru Epaltzari** eman dio, euskal literaturari lotuta egin duen ibilbidea aitortu eta saritzeko helburuaz. Izan ere, ibilbide horri esker, haurrek, gazteek eta helduek idazle honen sorkuntzaz eta euskarazko historiaz gozatzeko aukera dute. Gainera, horiek guztiak era didaktikoan hurbiltzen dizkie gure ikasleei, bere sorkuntza-prozesuan zuzeneko sarbidea izateko posibilitatea emanez.

AINGERU EPALTZA



Aingeru Epaltza 1960an Iruñean sortu zen. Kazetaritzan lizentziaduna da. Hainbat urtez, kazetari lanetan ibilia, besteak beste *Deia* egunkarian, *ETBn* eta *Navarra Hoy* egunkarian. Egun, euskarazko itzultzailea da Nafarroako Gobernuan, nahiz eta komunikabide batzuekin lankidetzan jarraitzen duen, adibidez: *Diario de Noticias* egunkaria eta *Argia* aldizkaria.

Bere lehenbiziko idazlanak Iruñeko Auzolan liburu dendarekin lotuta sortutako *Korrok* literatura aldizkarian argitaratu ziren 1984 eta 1989 bitartean. 1990. urtean, **Kazetaritza atalean Rikardo Arregi Saria** irabazi zuen.

Literaturan, hainbat genero landu ditu, hala nola, antzerkia, poemak eta saiakera, baina narratiban eta nobelan bere lana nabarmentzen da, helduei zein haur eta gazteei begira. Iruñeko idazleak bere liburuetan Euskal Herriko historiaz eta, bereziki, Nafarroako historiaz aritzen da eta Nafarroako egoera sozio-polotikoaz ere bai.

1985. urtean, **Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako Literatur Saria** lortu zuen, *Sasiak ere begiak baditik* argitaratuz. 1991. urtean, **Xalbador Saria** irabazi zuen *Ur uherrak* liburuarekin eta 1997ko **Euskadi Saria** *Tigrea ehizan* liburuarekin.

Bibliografia

Saiakera

Bezperaren bezpera (Pamiela, 2007)

Narratiba

Garretatik erauzitakoak (Elkar, 1989)

Lasto sua (Albernania, 2005)

Nobela

Sasiak ere begiak baditik (Elkar, 1986)

Ur Uherrak (Pamiela, 1993)

Tigrea ehizan (Elkar, 1997)

Rock'n'roll (Elkar-EEF, 2000)

Mailuaren odola – Erresuma eta Fedea I (Elkar, 2006)

Izan bainintzen Nafarroako errege – Erresuma eta Fedea II (Elkar, 2009)

Gure Jerusalem galdua – Erresuma eta Fedea III (Elkar, 2013)

Haur eta Gazte Literatura

Lur zabaletan (Pamiela, 1994)

Sorginkerien liburua: Katalin Kattalin-Xorgin bilakatu zenekoa (Pamiela, 1998)

Baloika (Pamiela, 2000)

Urtegijauna (Pamiela, 2002)